



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO UZTAILAREN 24AN
GOIZEKO 8:35EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

➤ **2014/07/08ko ohikoa.**

Batzarkideek, 2014ko uztailaren 8ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- 2014KO KULTURAKO DIRU-LAGUNTZAREN 2. ZATIA ORDAINTZEA.

Ikusirik

2014eko otsailaren 3an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2014ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, 2014ko kultur egitasmoak burutzeko diru-laguntza kopuruak behin betikoz onartu zituen.

Orain, kultur elkarteak hainbat ekintza antolatzeko emandako diru-laguntza modu honetara justifikatu dute:

San Praixku Guraso Elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
44. Umeentzako Patinen ikastaroa	180,00 €	135,00 €	Gastuak: 320 Sarrerak: 140 Guztira gastua: 180	45,00
Guztira				45,00 €

Aitzaga Elkarteak

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
79. Preso eta iheslarien ekarpena konponbidean	180,00 €	135,00 €	Gastuak: 306,00 Soberakina: 126,00	45,00



Usurbilgo Udala



Guztira	45,00 €
----------------	----------------

Jexux Artze Kultur Elkarte

Ekintzak	Izendatua	1.zatia %75a	Justifikatutakoa	Bideratu beharrekoa
25. Joxean Artzeren ingurko ikuskaria	2.502,00 €	1.876,50 €	Gastuak: 2.955,63 Sarrera: 886,00 Guztira gastua: 2.069,63 2. zatia 2.069,63 - 1.876,50 = 193,13	193,13 €
26. Asier ETA biok pelikula	171,00 €	128,25 €	Gastuak: 434,16 Sarrera: 243,00 Guztira gastua: 191,16 Soberakina 20,16	42,75 €
27. Hiru Antzezlan	2.466,00 €	1.849,50 €	Gastuak: 3.388,00 Sarrera: 1.098,00 Guztira gastua: 3.388 - 1.098 = 2.290 2.290,00 + 26. ekintzako soberakina 20,16 = 2.310,16 2. zatia 2.310,16 - 1.849,50 = 460,66	460,66 €
Guztira				696,54 €

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru laguntzak arautzeko udal ordenantzaren aldaketa (GAO, 2008/07/01).
- 2014n kultur egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2014/02/03).
- Kontuhartzailearen ziurtagiria
- Alegazioei erantzuteko Kultura Teknikariaren txostenak

Hau guztia horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei kultura arloko diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Eskatzailea	Ekintza	Ordainketa
San Praixkuk guraso elkarte	44	45,00
Aitzaga Elkarte	79	45,00
Jexux Artze Kultur Elkarte	25-26-27	696,54

Bigarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.4000.481.451.10.03.2014 (A6/2014)

Hirugarrena: Interesatuari akordioaren berri emango zaio.

Laugarrena: Kontu-hartzailetzari akordioaren berri emango zaio, ordainketa egiteko orria erantsiz.



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 08:40ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.